Bizkaiko meatzeetako langileen grebak eta eskariak (1890)

Euskal Herriko aurreneko grebetakoa izan zen Bizkaiko meatzariek 1890eko maiatzaren 1ean egin zutena Gallartan. La lucha de clases *Bilboko aldizkari sozialistak jaso zituen egun hartako gertaerak eta eskariak, nahiz arazoek hurrengo urteetan ere iraun zuten.*

[...] Bizkaiko meatzeetako langileek, maiatzaren 1ean Gallartako pilotalekuan bildurik, manifestazio berri eta zaratatsuak egin zituzten meatze-eskualde honetako jauntxoek jarritako barrakoi eta derrigorrezko dendak mantentzearen kontra, eta Batzorde bat izendatu zuten botere publikoei horiek laster erabat ken daitezen eskatzeko.

[...] Meatzeetako langile guztiek 1890ean grebara jo zuten, lan-egun mugatzea eta barrakoi eta derrigorrezko dendak kentzea eskatuz. Ondorioz probintzia hau gerra-egoerapean jarri zen eta tropa askok, Loma jeneralaren agindupean, parte hartu behar izan zuten ordena publikoa mantentzeko.

Greba-mugimendu hura, Loma jeneralaren aurrean langile eta ugazaben artean adosturiko hitzarmenaren bidez amaitu zen, honen bitartez 10 orduko lan-eguna jarri eta barrakoi zikin eta derrigorrezko dendak behin betiko desagertuz.

Baina handik laster ugazabek beren konpromisoa ahaztu eta barrakoiak berreraiki eta derrigorrezko dendak ezarri zituzten berriro, meatzariei izarretik izarrera lan eraginez. Beste greba batzuk egin ziren, konstituzio-garantiak ostera ere eten eta armadaren indarrak berriz ere jarri ziren mugimenduan.

Gaur egun, nola edo hala, 1890ean ezarririko lan-eguna mantentzen da, baina barrakoi eta derrigorrezko dendei dagokienez, meatze-alde guztian ia-ia lehenengo greba aurretik bezalaxe daude.

Bizkai aldean, legeak mespretxatuz eta mende honetako espiritu liberala zapalduz, lanean onartua izateko, nahitaezko baldintza gisa, higienearen kontrako txaboletan bizi eta janariak, onak zein txarrak (ia beti txarrak eta eskandaluzko prezioetan) halako denda jakinetan erosi beharra dago.

Hau guztiau, gure ikuspuntutik, hainbeste aldiz aipatzen den lanerako askatasunaren kontrako eraso ezin larriagoa da, osasun- eta higiene-legeen aurkako iraina eta, batez ere, esplotazio anti-humanitarioa, inongo gobernu landuk onartu behar ez lukeena.

Hala ere, Bizkaiko meatzeetako langileek, barrakoiak eta derrigorrezko dendak kentzeko, esklabotasun berri eta nazkagarriaren zeinuak direnak, grebarako eskubide zilegiaz baliatuko dira, gobernuak eta agintariek uste ez badute egiazko krimenak egiten dituzten kontzientzia gabeko negrero horien aseezintasunari muga bat ezarri behar zaiola behingoz.

"A los trabajadores de Vizcaya ['Bizkaiko langileei]",
La lucha de clases, 86. zenb., 1896-V-23.[1]

[1] [Iturria: EHUra sartzeko 2001/2002 ikasturteko hautaproba. Oro har EHUk egindako euskarazko itzulpenari segitu zaio, baina puntu batzuetan Kondaira taldeak itzulpena orraztu du jatorrizko (gaztelaniazko) testuaren arabera].